

EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA
2023-2024 IKASTURTEA
DBH 2

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA
EBALUAZIO ATALA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
1.1. Ebaluazioaren izaera zentsala; salbuespenak eta egokitzapenak	5
1.2. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak	6
1.2.1 Datu globalak eta hizkuntza ereduaren arabera xehatutako datuak	6
1.2.2 Datuak generoaren arabera xehakatuta	6
1.2.3 Proba egin duten ikasleak, konpetentzien arabera banakatuta	6
1.2.4 Bertaratu ez diren ikasleak eta proba egin duten ikasleak, konpetentzien arabera banakatuta	7
2. Gaztelaniazko hizkuntza konpetentziaz (GHK)	8
2.1 Probaren deskribapena	8
2.2 Galderak: informazioa	9
2.3 Emaidzak	11
2.3.1 Emaidza orokorrak	11
2.3.2 Emaidzak generoaren arabera	11
2.3.3 Konpetentzia mailak	11
2.4 Puntuazioen banaketa	13
3. Euskarazko hizkuntza konpetentzia (EHK)	16
3.1 Probaren deskribapena	16
3.2 Galderak: informazioa	17
3.3 Emaidzak	19
3.3.1 Emaidza orokorrak	19
3.3.2 Emaidzak generoaren arabera	19
3.3.3 Konpetentzia mailak	19
3.4 Puntuazioen banaketa	21
4. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA	24
4.1 Probaren deskribapena	24
4.2 Galderak: informazioa	25
4.3 Emaidzak	26
4.3.1 Emaidza orokorrak	26
4.3.2 Emaidzak generoaren arabera	26
4.3.3 Konpetentzia mailak	26
4.4 Puntuazioen banaketa	28
5. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA (ZK)	30
5.1 Probaren deskribapena	30
5.2 Galderak: informazioa	31

5.3 Emaitzak	32
5.3.1 Emaiza orokorrak	32
5.3.2 Emaitzak generoaren arabera	33
5.3.3 Konpetentzia mailak	33
5.4 Puntuazioen banaketa	35
6. INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA (IHK)	36
6.1 Probaren deskribapena	36
6.2 Galderak: informazioa	37
6.3 Emaitzak	39
6.3.1 Emaiza orokorrak	39
6.3.2 Emaitzak generoaren arabera	39
6.3.3 Konpetentzia mailak	39
6.4 Puntuazioen banaketa	41
7. ALDAGAI SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALA	44
7.1 ISEK lortzea eta erabiltzea	44
7.1.1 Erregresio-zuzena: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA	46
7.1.2 Erregresio-zuzena: EUSKARAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA	47
7.1.3 Erregresio-zuzena: MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA	47
7.1.4 Erregresio-zuzena: ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA	48
7.1.5 Erregresio-zuzena: INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA	48
7.2 ISEKaren banaketa	49
7.2.1 BANAKAKO PUNTUAZIOAK	49
7.2.2 IKASTETXEKO PUNTUAZIOAK	50

1. Sarrera

Hezkuntzako zuzendari nagusiak ekainaren 2an emandako 207/2023 Ebazpenean xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Departamentuak ebaluazio diagnostikoa ezarri du DBHko 2. mailako ikasle guztientzat. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Zentsala da, hau da, ikasle guztiek egin behar dute.
- Konpetentziala da, hau da, oinarrizko konpetentziak neurtzen ditu.
- Informazioa ematen die ikasleei eta haien familiei.
- Prestakuntzazkoa da eta orientabideak ematen ditu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2023-2024 ebaluazio diagnostiko zentsalak honako hauek izan ditu ardatz: irakas-hizkuntzetako konpetentzia linguistikoa (gaztelaniazko eta euskarazko konpetentzia linguistikoa), matematikarako konpetentzia, zientziarako konpetentzia eta ingelesezko konpetentzia linguistikoa.

Ebaluazio Atalak prestatu ditu errendimendu-probak, horretarako eratutako irakasle-taldeek egindako lanetik abiatuta. Hala, proba horiek kanpoko probak dira ikastetxeentzat. Probak egun berberetan egin dira ikastetxe guztietan eta alde zuzenetik ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira; irizpideak Atalak eman dituenak izan dira.

Ekainaren hasieran eskuratu zituzten ikastetxeek banakako txostenak (ikasle bakoitzaren emaitzekin) eta ikastetxearen txostena. Banakako txostenak familiei igorri zitzaizkien ikasturtea bukatu zenean. Ikastetxearen txostenak datu estatistiko hauek ditu: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, konpetentzia mailaren arabera ikasleen banaketa, galderetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, ikastalde edo gela bakoitzeko batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEK aldagai sozioekonomikoaren arteko erregresioari buruzko informazioa. Ebaluatutako konpetentziaren arabera informazioa tauletan eta grafikoetan eman da.

Bestalde, ikastetxe bakoitzak aukera du azken urteetako emaitzen bilakaera aztertzeko, zuzendaritza taldeak Educa plataformaren bidez eskura dituen grafiko batzuen bitartez. Txosten horiek honako hauei buruzko informazioa ematen dute, konpetentzia bakoitzean: batez besteko puntuazio transformatu eta estimatuak ikastetxeka eta generoka, ekitate- eta bikaintasun-tasak, ISEK, ikasleen banaketa ikasmailaka, eta asmatze-ehunekoak itemeka, eduki-multzoka eta ebaluatutako prozesuka, urteetan zehar izandako bilakaera kontuan hartuta.

Txosten honek aurreko informazioa osatzen du Nafarroako Foru Komunitatearen ikuspegi orokor batetik abiatuta; izan ere, ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa hartzen ditu. Agiri honetan garrantzi handia du konpetentzia mailen esanahiak eta galdera bakoitzean ebaluatutako prozesuaren identifikazioak. Ikasleen puntuazioen banaketa islatzen duten histogramak aurkeztu dira eta banaketa normalarekiko konparazioa egin da.

Halaber, ataletako batek aztertzen du ikastetxeen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa. Konpetentzia bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta

horri esker ikus daiteke zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

1.1. Ebaluazioaren izaera zentsala; salbuespenak eta egokitzapenak

2023-2024 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikula, osotara, 7756 ikaslekoa izan zen. Guztira, Curriculum Egokituko Programa egiten ari diren 136 ikasleak sartzen dira. Ikasle horiek ohiko ikastetxeetan edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek kudeatutako ikastetxeetan eskolatzen dira. Ikasle horiek ebaluazio diagnostikoko probetan lortutako emaitzak ez dira kontuan hartzen ebaluazioaren estatistika-emaitza orokorrak kalkulatzeko, eta, edonola ere, ez dute hizkuntza konpetentziako proba ingelesez egiten.

Horretaz gainera, beste hiru salbuespen-zerigati ezarri dira:

- a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, DBHko 2. maila Curriculum Egokitzapen Esanguratsurekin edo CBU curriculumarekin egiten ari direnak.
- b) Espainiako hezkuntza-sisteman berandu hasi diren ikasleak, baldin curriculum-desfase larria badute eta Curriculuma Eguneratzeko Plana aplikatzen bazaie.
- c) Ikasteko hizkuntza ia ez jakiteagatik zailtasunak dituzten ikasleak.

Hiru irizpide horiek aplikatuta, ikasgela arruntetan eskolatutako 231 ikasle salbuetsi ziren, eta, beraz, proben azken populazioa 7389 ikasletan zehaztu zen. Proba bakoitza egiten den eguneko inguruabar zehatzek zehazten dute konpetentzia bakoitzean ebaluatutako ikasleen azken kopurua (datu zehatzak 1.2 atalean jasotzen dira).

Aurreko ikasturteetan egin zen bezala, Ebaluazio Atalak, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin (NHBBZ) koordinatuta, probak egiteko egokitzapen pertsonalizatuak prestatu dituzte mugitzeko eta/edo ikusteko desgaitasuna duten hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako. Horretarako, harreman estua izan da ikastetxe bakoitzeko orientatzaileekin. Hurrengo taulan ageri dira probetarako egin diren egokitzapenak, hezkuntza premiaren mota aintzat hartuta.

	Egokitzapen mota	Ikastetxe kopurua
Ikusmen desgaitasuna	- Formatu digitala - Letra-tipoaren tamaina, lerroarte, koloreak...	5 ikastetxe
Mugimen desgaitasuna	- Formatu digitala, PDF dokumentuen editorea	4 ikastetxe

1.2. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

Ondoko tauletan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren zabaltasuna ikusarazten duten datuak.

1.2.1 Datu globalak eta hizkuntza ereduaren arabera xehatutako datuak

	DATU GLOBALAK		A/G ereduak		B/D ereduak	
Matrikula	7756	% 100	5995	% 77,29	1761	% 22,71
CEP	136	% 1,75	131	%1,69	5	% 0,06
Salbuetsitako ikasleak	231	% 2,98	215	% 2,77	16	% 0,21
Azken populazioa	7389	% 95,27	5649	% 72,83	1740	% 22,43
	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %

1.2.2 Datuak generoaren arabera xehakatuta

	Neskak		Mutilak	
Matrikula	3751	% 48,36	4005	% 51,64
CEP	34	% 0,44	102	% 1,32
Salbuetsitako ikasleak	96	% 1,23	135	% 1,75
Azken populazioa	3621	% 46,69	3768	% 48,58
	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %

1.2.3 Proba egin duten ikasleak, konpetentzien arabera banakatuta

	Proba egin duten ikasleen kopurua	%
Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia ⁽¹⁾	7122	% 91,83
Euskarazko hizkuntza konpetentzia ⁽²⁾	1676	% 95,17
Matematikarako konpetentzia ⁽¹⁾	7111	% 91,68
Zientziarako konpetentzia ⁽¹⁾	7123	% 91,84
Ingelesezko hizkuntza konpetentzia (3)	7120	% 93,44

⁽¹⁾ Ehunekoa kalkulatzeko, matrikula osoa hartzen da kontuan (7756 ikasle).

⁽²⁾ Ehunekoa kalkulatzeko, D/B ereduak matrikula osoa hartzen da kontuan (1761 ikasle).

⁽³⁾ Ehunekoa kalkulatzeko, a priori proba hori egin dezaketen ikasle guztiak hartzen dira kontuan (7620 ikasle – CEP egiten dutenak ez dira kontuan hartzen).

1.2.4 Bertaratu ez diren ikasleak eta proba egin duten ikasleak, konpetentzien arabera banakatuta

	Azken populazioa	Bertaratu ez diren ikasleen kopurua	Proba egin duten ikasleen kopurua	% ⁽¹⁾
Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia	7388	266	7122	% 96,40
Euskarazko hizkuntza konpetentzia	1740	64	1676	% 96,32
Matematikarako konpetentzia	7389	278	7111	% 96,24
Zientziarako konpetentzia	7389	266	7123	% 96,40
Ingeleseko hizkuntza konpetentzia	7385	265	7120	% 96,41

⁽¹⁾ Ehunekoa, kasu bakoitzean, azken populazioaren gainean kalkulatzen da.

2. Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia (GHK)

2.1 Probaren deskribapena

Probak bi zati ditu: lehenengoak irakurriaren ulermena neurtzen du, eta bigarrenak idatzizko ekoizpenerako konpetentzia.

Irakurtzeko konpetentzia askotariko testuen bidez neurtzen da, formatuari (jarraituak eta etenak), diskurtso-tipologiari (narratiba, azalpena...) edo generoari dagokienez. **Lehenengoa** testu mistoa (jarraitua eta etena) eta azalpenezkoa da, zehazki *“De vuelta al gimnasio, los entrenamientos más de moda”* izeneko erreportajea. **Bigarrena** testu etena da, *“Las actividades diarias influyen en la salud”*, Madrilgo Erkidegoko Fisioterapeuten Elkargoak ematen dituen jarraibideak eta aholkuak. **Hirugarrena** testu jarraitua eta kontakizunekoak da; zehazki, *“Caperucita en Manhattan”* eleberriaren zati bat.

Horietako bakoitzetik 6-10 galdera atera ziren, irakurriaren ulermena neurtzen duten 25 item guztira. Landutako atazek zerikusia dute ebaluazio diagnostikoan finkatutako bost irakurketa-prozesuekin. Item guztiak puntu 1ekin baloratu dira, 15. eta 18. itemak izan ezik, 2 punturekin baloratu baitira.

Azken itema idatzizko ekoizpeneko ariketari dagokio, eta nolabaiteko lotura du irakurriaren ulermena osatzen duen azken testuarekin. Kasu honetan, ikasleek irudi jakin batean inspiratutako deskribapen literario bat idatzi behar zuten, hainbat kontsigna zituena; galdera honek 10 puntu balio du.

Ondoko taulan, galdera bakoitzak izan duen asmatze-ehunekoa eta haren ezaugarriak agertzen dira: erantzun-motaren arabera tipologia, esleitutako gehieneko puntuazioa, ebaluatutako irakurketa-prozesua, baita zer konpetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintza dagozkion ere. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zatia	Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmatutakoen %	Konp. espezifikoa	Ebaluatutako prozesua	Oinarritzko jakintzak
Irakurriaren ulermena 1	1	Erantzun itxia	1	% 47,78	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	2	Erantzun erdieraikia	1	% 74,08	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	3	Erantzun itxia	1	% 71,97	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	4	Erantzun itxia	1	% 31,55	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	5	Erantzun erdieraikia	1	% 54,84	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	6	Erantzun erdieraikia	1	% 79,77	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	7	Erantzun itxia	1	% 87,18	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	8	Erantzun itxia	1	% 75,39	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	9	Erantzun itxia	1	% 64,22	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	10	Erantzun itxia	1	% 61,47	KE4	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	11	Erantzun itxia	1	% 73,15	KE4	Hausnartzea	B2.1
Irakurriaren ulermena 2	12	Erantzun itxia	1	% 27,04	KE4	Integratzea	B3.4

Irakurriaren ulermen 2	13	Erantzun erdieraikia	1	% 78,24	KE4	Hausnartzea/interpretatzea	B1.1 / B3.4
Irakurriaren ulermen 2	14	Erantzun itxia	1	% 79,98	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 2	15	Erantzun itxia	2	% 83,70	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 2	16	Erantzun erdieraikia	1	% 40,98	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 3	17	Erantzun erdieraikia	1	% 76,87	KE4/ KE8	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 3	18	Erantzun itxia	2	% 82,26	KE4/ KE8	Interpretatzea/aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 3	19	Erantzun itxia	1	% 81,92	KE4/ KE8	Aurkitzea	C2.2/ B3.4/ D5
Irakurriaren ulermen 3	20	Erantzun itxia	1	% 69,22	KE4/ KE8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 3	21	Erantzun erdieraikia	1	% 90,89	KE4/ KE8	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 3	22	Erantzun erdieraikia	1	% 79,56	KE4/ KE8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 3	23	Erantzun itxia	1	% 84,41	KE4/ KE8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 3	24	Erantzun itxia	1	% 69,69	KE4/ KE8	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermen 3	25	Erantzun itxia	1	% 83,57	KE4/ KE8	Integratzea	B3.4/ B2.1.
Idatzizko adierazpena	26	Irekia	10	% 61,93	KE5/ KE8/ KE9	Idatzizko adierazpena	B3.5/ B4/ B2/ C2.9/

2.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondoko araberakoa da: erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo itemak eskatzen duen erantzun mota (itxia, erdieraikia edo irekia, eskatzen duena gauzak hautatzea, identifikatzea, lotzea, ordenatzea, idaztea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Gaztelaniazko hizkuntza konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena **2.3.** atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute Hezkuntza Departamentuaren webgunean eta Hezkuntza Departamentuaren barne-plataforman eskuragarri dauden zuzenketa-koadernoetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar duen prozesu hau -hausnartu eta hobekuntzak proposatzekoa- bideratu behar du.

Gure proposamenak aztertu eta bideratzeko, honako alderdi hauen antzekoei errepara diezaiekegu, adibidez.

Ikusi dugu badirela 4 galdera ikasleen % 50ek baino gutxiagok zuzen erantzun dituztenak Galderak aztertzen baditugu egiaztatuko dugu galdera gehienak interpretaziorako eta ulermen orokorrerako irakurketa prozesuei

buruzkoak direla, hau da, testuko zati desberdinak lotu behar direnean edo esplizituki aipatzen ez den informazioa ondorioztatu behar denean. Gainera, badirudi nolabaiteko zailtasuna dakartela honako item hauek ere: gogoeta-prozesua neurtzen dutenak, testuaz kanpoko ezagutzak aktibatzen behartzen gaituztenak, erantzun-formatu irekia edo erdi eraikia dutenak.

Halako ohartarazpenetatik abiatuta zehatz dezakegu zer prozesuk, zer ataza edo testu motak eskatzen duten irakasleen arreta handiagoa.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,228	14	0,347
2	0,366	15	0,349
3	0,213	16	0,362
4	0,024	17	0,398
5	0,425	18	0,383
6	0,418	19	0,425
7	0,336	20	0,370
8	0,294	21	0,425
9	0,442	22	0,490
10	0,281	23	0,387
11	0,065	24	0,356
12	0,016	25	0,335
13	0,393	26	0,513

2.3 Emaitzak

2.3.1 Emaiza orokorrak

Gutira 7123 ikaslek egin dute gaztelaniazko hizkuntza konpetentziako proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	7122
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	0
Lortutako gehieneko puntuazioa:	37
Batez besteko puntuazioa:	25,35
Desbideratze tipikoa:	6,01


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 0 izan da eta handiena 37 puntu.
- Desbideratze tipikoa 6,01 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 23,71), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

2.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **gaztelaniazko hizkuntza konpetentziaren** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3487	26,54	5,60
Mutilak	3635	24,21	6,17
Nafarroa	7122	25,35	6,01



Ikus daitekeenez, neskek lortutako puntuazioa mutilek lortutakoa baino 2,33 puntu handiagoa da: alde hori handitzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herena baino handiagoa baita (6,01). Halaber, emakumezkoek lortutako emaitzen dispersioa gizonezkoek lortutakoena baino txikiagoa da.

2.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetakako ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila honetako ikasleak gai dira informazio esplizitua eta lokalizatua aurkitzeko. Ideien arteko konexio sinpleak egiten dituzte, ez dute inferentziarik sortzen. Gai nagusia ezagutzen dute, baina oso agerikoa denean edo narrazio-testuetan bakarrik. Zailtasunak dituzte testuaren tesia edo egilearen asmoa identifikatzeko. Zaila egiten zaie informazioa kontrastatzea eta bere kanpo-ezagutza testuari aplikatzea. Ongi moldatzen dira lokalizazio-zereginei buruzko galdera itxietan edo ireki erraz-errazetan. Ongi moldatzen dira narrazio-testuetan, eta okerrago argudio- eta azalpen-testuetan. ----- Haren adierazpen idatzian koherentzia- eta kohesio-arazoak daude, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komuntadura-arazoak, preposizioen erabilera...). Ortografia akats larriak ditu.	Maila honetako ikasleak gai dira informazio literala edo sinonimoekin adierazia aurkitzeko, erabat lokalizatuta ez dagoena barne. Behe mailako inferentziak egiten dituzte, baina arazoak dituzte ideiak interpretatzeko edo konektatzeko, inferentzia konplexua denean, eta datuak kontrastatzeko. Gai dira testu baten ideia nagusia eta egilearen asmoa ezagutzeko narrazio- eta azalpen-testuetan, agerikoa denean eta ñabardura gutxi daudenean, baina zailtasunak dituzte tesia identifikatzeko testu konplexuetan. Zailtasunak dituzte testuari kanpo-ezagutza aplikatzeko, haren edukia eta forma ebaluatu behar dituztenean. Ongi moldatzen dira galdera itxietan edo irekietan, baina ez ideiak lotu edo ordenatu behar diren galderetan. Arazoak dituzte informazio asko ematen den testuekin. ----- Idatzizko adierazpenak testuaren barne-kohesioak akatsak ditu, komuntadurazkoak, eta esaldiek egitura oso oinarritzakoa dute. Ortografia akats ugari ditu.	Maila honetako ikasleak gai dira informazio literala edo sinonimoekin adierazia aurkitzeko, erabat lokalizatuta ez dagoena edo esplizituki adierazita ez dagoena barne. Inferentzia konplexuagoak egiten dituzte, eta zati baten edukia interpretatzen dute, testuinguru zabalagoa kontuan hartuta. Erraz ezagutzen dituzte testuaren ideia nagusia edo tesia eta egilearen asmoaren ñabardurak, testu mota edozein delarik ere. Gai dira testuaren edukia eta forma baloratzeko, testuari kanpo-ezagutzak aplikatuz. Gai dira askotariko zereginei arrakastaz aurre egiteko, ideiak lotu edo ordenatzea eskatzen dutenak barne. Arazorik gabe moldatzen dira mota guztietako testuetara. ----- Idatzizko konpetentziari dagokionez, gai dira, oro har, testu kohesionatuak eta koherenteak sortzeko, ulermena zailtzen ez duten akatsekin; erregistro egokia erabiltzen dute. Ortografia-akatsak, batez ere, ohikoak ez diren hitzetan gertatzen dira, eta ez dute komunikazioa eragozten.	Maila honetako ikasleak gai dira informazioa bilatzeko, nahiz eta erabat sakabanatuta eta modu ez-esplizituan adierazita egon. Inferentzia konplexuak egiten dituzte, eta zati baten edukia interpretatzen dute, testuinguru zabalagoa kontuan hartuta. Testuaren tesi nagusia eta egilearen asmoa ezagutzen dituzte. Testuaren azpiko ikuspegia eta jarrerak ulertzen dituzte, item mota eta tipologia guztietan. Gaitasun bikaina erakusten dute irakurritakoa kanpo-ezagutzekin lotzeko. ----- Sortutako testuak kohesioa du, argia da eta gaiaren garapen ona du. Maila hau aurrekoarengandik bereizten da; izan ere, konplexutasun eta aberastasun handiagoko lexiko eta gramatika mekanismoak erabiltzen dira, ez dago akatsik ortografiari eta komuntadurari dagokienez, eta hizkuntza zehatza eta egokia erabiltzen da.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 17)	% 9,48
2. maila	[17, 23)	% 20,96
3. maila	[23, 32)	% 56,75
+3. maila	[32, 37)	% 12,81



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik ia zazpik (%69,56) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (% 12,81) bikaintasun maila erdietsi du.
- Hamar ikasletik batek (% 9,48) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 20,96) tarteko egoeran dago, ikasmilari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

2.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, *gaztelaniazko hizkuntza konpetentziaren* proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzeko ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	GHK
Egindako probak	7122
Batez besteko puntuazioa	25,35
Desbideratze tipikoa	6,01
Asimetria	-0,730
Kurtosia	0,365



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta zorrotzagoa.
- Fisherren asimetria koefizientea $-0,730$ da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa dela (% 44,5 vs % 55,5), eta aldakortasun handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea $+0,365$ da; horra zergatik den zorrotzagoa (banaketa leptokurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio handiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

3. Euskarazko hizkuntza konpetentzia (EHK)

3.1 Probaren deskribapena

Probak bi zati ditu: lehenengoak irakurriaren ulermena neurtzen du, eta bigarrenak idatzizko ekoizpenerako konpetentzia.

Irakurtzeko konpetentzia askotariko testuen bidez neurtzen da, formatuari (jarraituak eta etenak), diskurtso-tipologiari (narratiba, azalpena...) edo generoari dagokienez. Aurten, lehenbiziko testua testu jarraitua eta narratiboa da, zehazki *“Alizia herrialde miresgarrian”* eleberri ezagunaren zati bat. Irakurriaren ulermeneko bigarrenak beritasun bat dakar; hiru testu labur dira, gai bera dutenak, baina elkarren artean erabat independenteak direnak: *“Segapoto”*, bertsolarientzako aplikazio informatiko bati buruzko albiste labur bat, *“Txinako emakumeen hizkuntza”*, emakume txinatarren arteko komunikazio-sistema zahar bati buruzko albiste labur bat, eta poema bat, *“Silaba batengatik”*. Hirugarrena testu etena eta azalpenezkoa da, *“Piriniotako V. mikroipuin lehiaketa”* kartela.

Horietako bakoitzetik 7-10 galdera atera ziren, irakurriaren ulermena neurtzen duten 26 item guztira. Horietako bat 2 punturekin baloratu da, puntuazio partzialak onartuta, eta gainerakoak puntu batekin. Landutako atazek zerikusia dute ebaluazio diagnostikoan finkatutako bost irakurketa prozesurekin. Halaber, ahalegina egin da galderen tipologia askotarikoa izan dadin.

Azken itema idatzizko ekoizpeneko ariketari dagokio, eta nolabaiteko lotura du irakurriaren ulermena osatzen duen azken testuarekin. Kasu horretan, ikasleei albiste bat idazteko eskatzen zitzaaien, hirugarren testuak aipatzen zuen literatura-lehiaketari buruzko informazioa emateko.

Ondoko taulan, galdera bakoitzak izan duen asmatze-ehunekoa eta haren ezaugarriak agertzen dira: erantzun-motaren araberrako tipologia, esleitutako gehieneko puntuazioa, ebaluatutako irakurketa-prozesua, baita zer konpetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintza dagozkion ere. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zatia	Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmaturakoen %	Konp. espezifiko	Ebaluatutako prozesua	Oinarritzko jakintzak
Irakurriaren ulermena 1	1	Erdieraikia	1	% 97,73	4, 8	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	2	Itxia	1	% 79,36	4 / 8	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	3	Itxia	1	% 29,18	KE 4/ KE 8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	4	Itxia	1	% 61,22	KE 4/ KE 8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	5	Erdieraikia	1	% 59,19	KE 4/ KE 8	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	6	Erdieraikia	1	% 43,32	KE 4/ KE 8	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	7	Itxia	1	% 60,08	KE 4/ KE 9/ KE 8	Hausnartzea	B1.1/ B3.4
Irakurriaren ulermena 1	8	Itxia	1	% 46,12	KE 4/ KE 8	Hausnartzea	B3.4/ D2 / D3
Irakurriaren ulermena 1	9	Itxia	1	% 62,41	KE 4/ KE 8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	10	Erdieraikia	1	% 41,65	KE 4	Aurkitzea	B3.4

Irakurriaren ulermena 2	11	Itxia	1	% 65,27	KE 4	Hausnartzea	B3.4 / B1.1
Irakurriaren ulermena 2	12	Itxia	1	% 49,46	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	13	Itxia	1	% 79,77	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	14	Itxia	1	% 85,74	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	15	Itxia	1	% 57,70	KE 4/ KE 9	Interpretatzea	D3/ D2/ B4.1
Irakurriaren ulermena 2	16	Erdieraikia	1	% 69,99	KE 4/ KE 9	Hausnartzea	D2/ D3/ D5
Irakurriaren ulermena 2	17	Itxia	1	% 48,09	KE 4/ KE 9	Hausnartzea	D5 / D2/ D3/ B2.4/
Irakurriaren ulermena 2	18	Itxia	2	% 67,27	KE 4/ KE 6	Hausnartzea	D5/ D2/ B3.4
Irakurriaren ulermena 3	19	Itxia	1	% 55,43	KE 4/ KE 6 KE 9	Interpretatzea	B3.4/ B2.1/ B2.4
Irakurriaren ulermena 3	20	Itxia	1	% 51,37	KE 4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	21	Itxia	1	% 55,43	KE 4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	22	Itxia	1	% 74,76	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	23	Itxia	1	% 91,29	KE 4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	24	Itxia	1	% 76,91	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	25	Itxia	1	% 60,98	KE 4	Hausnartzea	B2.1
Irakurriaren ulermena 3	26	Itxia	1	% 10,74	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Idatzizko adierazpena	27	Irekia	10	% 58,06	KE 5/ KE 9	Idatzizko adierazpena	B3.5. B4/ B2/ D7

3.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondokoen arabera da: erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo itemak eskatzen duen erantzun mota (itxia, erdieraikia edo irekia, eskatzen duena gauzak hautatzea, identifikatzea, lotzea, ordenatzea, idaztea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Irakurketa maila bakoitzaren azalpena 3.3. atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute Hezkuntza Departamentuaren webgunean eta Hezkuntza Departamentuaren barne-plataforman eskuragarri dauden zuzenketa-koadernoetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar duen prozesu hau -hausnartu eta hobekuntzak proposatzekoa- bideratu behar du.

Gure proposamenak aztertu eta bideratzeko, honako alderdi hauen antzekoei errepara diezaiekegu, adibidez.

Zazpi galdera ditugu, eta asmatutakoak ez dira % 50era iristen. Horiek aztertuz gero, gehienak interpretazio eta ulermen globaleko irakurketa-prozesuei dagozkiela egiaztatuko dugu (lau item), testuaren zati desberdinak erlazionatu behar direnean edo esplizituki aipatu ez den informazioa ondorioztatu behar denean; eta hausnarketakoekin (zazpitik bi), testutik kanpoko ezagutzak aktibatzerara behartzen gaituztenak.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,096	15	0,273
2	0,202	16	0,316
3	0,268	17	0,152
4	0,374	18	0,268
5	0,370	19	0,200
6	0,454	20	0,312
7	0,399	21	0,387
8	0,287	22	0,297
9	0,213	23	0,260
10	0,306	24	0,379
11	0,119	25	0,148
12	0,308	26	-0,075
13	0,286	27	0,531
14	0,361		

3.3 Emaitzak

3.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 1676 ikaslek egin dute euskarazko hizkuntza konpetentziako proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	1676
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	3
Lortutako gehieneko puntuazioa:	35,5
Batez besteko puntuazioa:	22,28
Desbideratze tipikoa:	5,92


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 3 izan da eta handiena 35,5 puntu.
- Desbideratze tipikoa 5,92 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 26,57), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

3.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **euskarazko hizkuntza konpetentziaren** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	812	23,94	5,31
Mutilak	864	20,73	6,05
Nafarroa	1676	22,28	5,92



Ikus daitekeenez, neskek lortutako puntuazioa mutilek lortutakoa baino 3,21 puntu handiagoa da: alde hori handitzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren erdia baino handiagoa baita (5,92). Halaber, emakumezkoek lortutako emaitzen dispersioa gizonezkoek lortutakoena baino txikiagoa da.

3.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila honetako ikasleak gai dira informazio esplizitua eta lokalizatua aurkitzeko. Ideien arteko konexio sinpleak egiten dituzte, ez dute inferentziarik sortzen. Gai nagusia ezagutzen dute, baina oso agerikoa denean edo narrazio-testuetan bakarrik. Zailtasunak dituzte testuaren tesia edo egilearen asmoa identifikatzeko. Zaila egiten zaie informazioa kontrastatzea eta bere kanpo-ezagutza testuari aplikatzea. Ongi moldatzen dira lokalizazio-zereginei buruzko galdera itxietan edo ireki erraz-errazetan. Ongi moldatzen dira narrazio-testuetan, eta okerrago argudio- eta azalpen-testuetan. ----- Haren adierazpen idatzian koherentzia- eta kohesio-arazoak daude, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komunztadura-arazoak, preposizioen erabilera...). Ortografia akats larriak ditu.	Maila honetako ikasleak gai dira informazio literala edo sinonimoekin adierazia aurkitzeko, erabat lokalizatuta ez dagoena barne. Behe mailako inferentziak egiten dituzte, baina arazoak dituzte ideiak interpretatzeko edo konektatzeko, inferentzia konplexua denean, eta datuak kontrastatzeko. Gai dira testu baten ideia nagusia eta egilearen asmoa ezagutzeko narrazio- eta azalpen-testuetan, agerikoa denean eta ñabardura gutxi daudenean, baina zailtasunak dituzte tesia identifikatzeko testu konplexuetan. Zailtasunak dituzte testuari kanpo-ezagutza aplikatzeko, haren edukia eta forma ebaluatu behar dituztenean. Ongi moldatzen dira galdera itxietan edo irekietan, baina ez ideiak lotu edo ordenatu behar diren galderetan. Arazoak dituzte informazio asko ematen den testuekin. ----- Idatzizko adierazpenak testuaren barne-kohesioko akatsak ditu, komunztadurazkoak, eta esaldiek egitura oso oinarritzak dute. Ortografia akats ugari ditu.	Maila honetako ikasleak gai dira informazio literala edo sinonimoekin adierazia aurkitzeko, erabat lokalizatuta ez dagoena edo esplizituki adierazita ez dagoena barne. Inferentzia konplexuagoak egiten dituzte, eta zati baten edukia interpretatzen dute, testuinguru zabalagoa kontuan hartuta. Erraz ezagutzen dituzte testuaren ideia nagusia edo tesia eta egilearen asmoaren ñabardurak, testu mota edozein delarik ere. Gai dira testuaren edukia eta forma baloratzeko, testuari kanpo-ezagutzak aplikatuz. Gai dira askotariko zereginei arrakastaz aurre egiteko, ideiak lotu edo ordenatzea eskatzen dutenak barne. Arazorik gabe moldatzen dira mota guztietako testuetara. ----- Idatzizko konpetentziari dagokionez, gai dira, oro har, testu kohesionatuak eta koherenteak sortzeko, ulermena zailtzen ez duten akatsekin; erregistro egokia erabiltzen dute. Ortografia-akatsak, batez ere, ohikoak ez diren hitzetan gertatzen dira, eta ez dute komunikazioa eragozten.	Maila honetako ikasleak gai dira informazioa bilatzeko, nahiz eta erabat sakabanatuta eta modu ez-esplizituan adierazita egon. Inferentzia konplexuak egiten dituzte, eta zati baten edukia interpretatzen dute, testuinguru zabalagoa kontuan hartuta. Testuaren tesi nagusia eta egilearen asmoa ezagutzen dituzte. Testuaren azpiko ikuspegia eta jarrerak ulertzen dituzte, item mota eta tipologia guztietan. Gaitasun bikaina erakusten dute irakurritakoa kanpo-ezagutzekin lotzeko. ----- Sortutako testuak kohesioa du, argia da eta gaiaren garapen ona du. Maila hau aurrekoarengandik bereizten da; izan ere, konplexutasun eta aberastasun handiagoko lexiko eta gramatika mekanismoak erabiltzen dira, ez dago akatsik ortografiari eta komunztadurari dagokienez, eta hizkuntza zehatza eta egokia erabiltzen da.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 14)	% 9,31
2. maila	[14,19]	% 19,15
3. maila	[19,30]	% 61,58
+3. maila	[30, 37]	% 9,96



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik zazpi baino zertxobait gehiagok (% 71,54) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek (% 9,64) erdietsi du bikaintasun maila.
- Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok (% 9,31) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 19,15) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

3.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **euskarazko hizkuntza konpetentziaren** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzeko ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	EHK
Egindako probak	1676
Batez besteko puntuazioa	22,28
Desbideratze tipikoa	5,92
Asimetria	-0,345
Kurtosia	-0,361



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, eta zerbait kamutsagoa.
- Fisherren asimetria koefizientea $-0,345$ da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa dela (% 48,2 vs % 51,8), eta aldakortasun handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea $-0,361$ da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

4. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA (MK)

4.1 Probaren deskribapena

Bi estimulak edo egoerak osatu dute proba: “Eski-bidaia familiarra” eta “Deskonexioa hondartzan”. Lehenengotik 12 item egin ziren, eta bigarrenetik 8, guztira 20 galdera, guztiak puntu batekin baloratuta (gehieneko puntuazioa 20 puntukoa da).

20 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko matematika prozesuekin daude loturik eta curriculumeko eduki-multzoetakoak dira. Hurrengo taulan erakusten dira probako galderen zenbait ezaugarri: tipologia (irekia edo itxia), gehienez esleitutako puntuazioa, ebaluatutako prozesu matematikoa, eta galdera bakoitza zein oinarritzko jakintzari dagokion. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmatuta koen %	Konp. espezifikoa	Ebaluatutako prozesua	Oinarritzko jakintzak
1	Erantzun irekia	1	% 38,97	Problemak ebaztea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakizkoa
2	Erantzun itxia	1	% 53,34	Arrazoitzea eta probatzea	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Neurria
3	Erantzun itxia	1	% 36,08	Konexioak	Arrazoitzea eta hausnartzea	Estokastikoa
4	Erantzun itxia	1	% 42,91	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Estokastikoa
5	Erantzun itxia	1	% 81,27	Komunikazioa eta irudikapena	Aplikatzea eta aztertzea	Algebraikoa
6	Erantzun itxia	1	% 36,49	Problemak ebaztea	Aplikatzea eta aztertzea	Algebraikoa
7	Erantzun irekia	1	% 17,15	Problemak ebaztea	Aplikatzea eta aztertzea	Espaziala
8	Erantzun irekia	1	% 31,63	Problemak ebaztea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakizkoa
9	Erantzun itxia	1	% 40,85	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Algebraikoa
10	Erantzun irekia	1	% 70,58	Problemak ebaztea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakizkoa
11	Erantzun itxia	1	% 30,83	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Estokastikoa
12	Erantzun irekia	1	% 43,88	Komunikazioa eta irudikapena	Arrazoitzea eta hausnartzea	Algebraikoa
13	Erantzun irekia	1	% 28,89	Arrazoitzea eta probatzea	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Neurria
14	Erantzun itxia	1	% 60,47	Arrazoitzea eta probatzea	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Neurria
15	Erantzun irekia	1	% 29,62	Arrazoitzea eta probatzea	Aplikatzea eta aztertzea	Espaziala
16	Erantzun itxia	1	% 13,84	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Espaziala
17	Erantzun itxia	1	% 36,46	Konexioak	Aplikatzea eta aztertzea	Espaziala
18	Erantzun itxia	2	% 28,62	Arrazoitzea eta probatzea	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Neurria
19	Erantzun itxia	1	% 28,55	Problemak ebaztea	Aplikatzea eta aztertzea	Zenbakizkoa

20	Erantzun itxia	1	% 22,21	Problemak ebaztea	Aplikatzea eta aztertzea	Espaziala
----	----------------	---	---------	-------------------	--------------------------	-----------

4.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna erreferentziazko edukiaren arabera da, esparru bat baino gehiago nahasten ote dituen, zer prozesu mota ebaluatzen den, informazioa nola aurkezten den (zenbakietan, benetako egoeretan, modu esplizituan gutxiago edo gehiago, grafikoetan, plano batean...), zein galdera mota den (itxia edo irekia, urrats bakarra edo gehiago egin behar diren...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haitan sartzen ditugu ikasleak). Matematikarako konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena 4.3. atalean dago.

Akatsek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren analisi xehatua dute zuzenketa-koadernoetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta aukera ematen du ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak bideratzeko.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,524	11	0,234
2	0,206	12	0,377
3	0,123	13	0,468
4	0,397	14	0,272
5	0,197	15	0,445
6	0,148	16	0,111
7	0,392	17	0,246
8	0,430	18	0,235
9	0,146	19	0,089
10	0,406	20	0,106

4.3 Emaitzak

4.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 1676 ikaslek egin dute euskarazko hizkuntza konpetentziako proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	7111
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	0
Lortutako gehieneko puntuazioa:	20
Batez besteko puntuazioa:	7,73
Desbideratze tipikoa:	3,41

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 0 izan da eta handiena 20 puntu.
- Desbideratze tipikoa 3,41 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 44,11), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun handia dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

4.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **matematikarako konpetentziaren** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3483	7,56	3,30
Mutilak	3628	7,89	3,50
Nafarroa	7111	7,73	3,41

Generoaren arabera bereizitako batez besteko puntuazioak (MK)



Ikus daitekeenez, mutilek lortutako batez besteko puntuazioa neskek lortutakoa baino 0,33 puntu handiagoa da: alde hori arintzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herena baino txikiagoa baita (3,41). Mutilek lortutako batez bestekoa neskek lortutakoa baino handiagoa bada ere, neskek lortutako emaitzen dispersioa mutilek lortutakoena baino txikiagoa da.

4.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila.*

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetakoko ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Matematikarako konpetentziaren behe maila erakusten dute, espero baino askoz txikiagoa, oso galdera gutxitan ematen baitute erantzun zuzena. Zailtasun handiak dituzte planteatutako egoera ulertzeko, edo problema matematikoki planteatzea eta ebaztea ahalbidetzen duten informazioa eta datu garrantzitsuak identifikatzeko. Ez dira gai segidako bi urrats edo eragiketa baino gehiago sekuentziatzeko, problema matematikoak ebazteko. Batzuetan, irudikapen desberdinetatik (grafikoak, marrazkiak...) ageriko informazioa ateratzen dute, baina arazoak dituzte planteatutako egoerak hainbat datu eta zentzu matematiko erlazionatzea eskatzen duenean. Zailtasunak dituzte zatikizko zenbakietan adierazitako datuak erabiltzeko. Ez dute behar bezala baloratzen soluzioa sinesgarria den, eta ez dira gai prozesu bati buruz argudiatzeko edo matematikoki arrazoitzeko.	Espero baino konpetentzia txikiagoa erakusten dute. Planteatutako egoerak ulertzen dituzte edo informazioa eta datu garrantzitsuak identifikatzen dituzte, baina ez dute egoera matematikoki egoki planteatzen edo ebazten. Elkarren segidako bi urrats edo eragiketa baino gehiago behar dituzten zenbait problema matematiko planteatzen eta ebazten dituzte. Irudikapen desberdinei buruzko oinarriko galderak (grafikoak, marrazkiak...) ebazteko gai dira, baina zailtasunen bat dute egoera praktikoak direnean edo beste zentzu matematiko batzuk konbinatzen direnean. Zailtasunak dituzte zatikizko zenbakietan adierazitako datuak erabiltzeko. Gai dira baloratzeko soluzio bat sinesgarria den, baina ez dira gai matematikoki argudiatzeko edo arrazoitzeko.	Erakusten dute konpetentzia menderatzen dutela, ikasmaila honetan espero den neurrian. Egoerak ulertzen dituzte, eta beharrezko informazioa identifikatzen dute problemaren planteamendu matematikoa abiarazteko; gehienetan ongi egiten dute planteamendua. Elkarren segidako bi urrats edo eragiketa baino gehiago behar dituzten problema matematikoak planteatzen eta ebazten dituzte, baita testuinguru errealei buruzkoak ere. Zuzen interpretatzen dituzte irudikapenak (grafikoak, marrazkiak...), biziaren errealeko egoeren tipologia askotarikoa barne. Erraz moldatzen dira, informazioa beste zentzu matematiko batzuekin konbinatu behar denean ere. Zatikizko zenbakietan adierazitako datuak behar bezala erabiltzen dituzte. Arrazoibide matematikoa erabiltzen dute azalpenak eta argudioak emateko, bai beren lanketei buruz, bai gai orokorreari buruz.	Konpetentzia zehaztasun handiz menderatzen dute. Oso ongi ulertzen dute planteatzen zaien egoera, asmatu egiten dute hura matematizatzen, eta datu garrantzitsuak eta beharrezkoak erraz identifikatzen dituzte. Hainbat urrats edo eragiketa egitea eskatzen duten problema matematikoak ebazten dituzte, baita hainbat zentzumen matematiko konbinatzen badituzte eta testuinguru errealei erreferentzia egiten badiete ere. Zehaztasunez ebazten dituzte problema konplexuak, horietako informazioa irudikapen desberdinetatik lortzen denean ere (grafikoak, marrazkiak...). Zatikizko zenbakietan adierazitako datuak behar bezala erabiltzen dituzte. Arrazoibide matematikoa erabiltzen dute azalpenak eta argudioak emateko, bai beren lanketei buruz, bai gai orokorreari buruz. Gai dira soluzioa beste testuinguru batzuetan aplikatzeko.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 4)	% 10,74
2. maila	[4, 6)	% 20,59
3. maila	[6, 13)	% 59,49
+3. maila	[13, 20)	% 9,18



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik ia zazpik (% 68,67) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko. Hamaika ikasletik batek (% 9,2) erdietsi du bikaintasun maila.
- Hamar ikasletik batek (% 10,74) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 20,59) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

4.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **matematikarako konpetentziaren** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzeko ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	MK
Egindako probak	7111
Batez besteko puntuazioa	7,73
Desbideratze tipikoa	3,41
Asimetria	0,495
Kurtosia	-0,133



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa eskuin aldetik, eta ez hain zorrotza.
- Fisherren asimetria koefizientea 0,495 da, eta hori da asimetria eskuinekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino handiagoa dela (% 55 vs % 45), eta aldakortasun txikiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,133 da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

5. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA (ZK)

5.1 Probaren deskribapena

Proba lau estimulu edo egoerak osatu dute: “Zergatik flotatzen du uretan izotzak”, “2022an Espainian sortutako energia elektrikoaren portzentajezko banaketa, motaren arabera”, “Florence Bascom” eta “Zelula eta izaki bizidunak”. Lehenbizikotik 8 item egin ziren, bigarrenetik 10, hirugarrenetik 5 eta laugarrenetik 5, guztira 28 galdera. Horien artean, 25 galderak puntu 1eko balorazioa izan dute, 1ek 1,5 puntukoa eta 2k 2 puntukoa, kasu honetan puntuazio partzialak egon zitezkeelarik (gehieneko puntuazioa 30,5ekoa izan da).

28 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko zientzia prozesuekin daude loturik eta eduki multzo bat baino gehiagokoak dira. Hurrengo taulan erakusten dira galderen zenbait ezaugarri: tipologia (irekia edo itxia), gehienez esleitutako puntuazioa, ebaluatutako prozesu zientifikoa, eta galdera bakoitza zein oinarritzko jakintzari dagokion. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmatutako en %	Konp. espezifikoa	Ebaluatutako prozesua	Oinarritzko jakintzak
1	Erantzun itxia	1	% 83,01	FK: KE 1 // KE 2	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Oinarritzko trebetasunak / Ikasgaia
2	Erantzun irekia	3	% 27,87	FK: KE 1 // KE 2 // KE 3	Proba zientifikoak erabiltzea	Oinarritzko trebetasunak / Ikasgaia
3	Erantzun itxia	1	% 88,77	FK: KE 3	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Oinarritzko trebetasunak / Ikasgaia
4	Erantzun itxia	1	% 79,78	FK: KE 1 // KE 2	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Oinarritzko trebetasunak / Ikasgaia
5	Erantzun itxia	1	% 61,72	FK: KE 3	Gai zientifikoak identifikatzea	Jakintzagaia
6	Erantzun itxia	2	% 38,59	FK: KE 1 // KE 2 // KE 3	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Oinarritzko trebetasunak / Ikasgaia / Aldaketa
7	Erantzun itxia	1	% 65,74	FK: KE 1	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Aldaketa
8	Erantzun itxia	1	% 76,82	FK: KE 1 // KE 2 // KE 3 // KE 4	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Oinarritzko trebetasunak / Aldaketa
9	Erantzun itxia	1	% 75,88	FK: KE 3	Gai zientifikoak identifikatzea	Energia
10	Erantzun erdieraikia	1	% 49,70	FK: KE 3	Gai zientifikoak identifikatzea	Energia
11	Erantzun itxia	1	% 31,26	FK: KE 3	Gai zientifikoak identifikatzea	Energia
12	Erantzun itxia	1	% 51,31	FK: KE 1	Gai zientifikoak identifikatzea	Energia
13	Erantzun itxia	1	% 80,72	FK: KE 3	Gai zientifikoak identifikatzea	Energia
14	Erantzun itxia	2	% 52,43	FK: KE 1 // KE 3	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Oinarritzko trebetasunak / Energia
15	Erantzun irekia	1	% 70,09	FK: KE 1	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Oinarritzko trebetasunak

16	Erantzun itxia	1	% 72,53	FK: KE 3	Proba zientifikoak erabiltzea	Oinarrizko trebetasunak
17	Erantzun itxia	1	% 64,10	FK: KE 4	Proba zientifikoak erabiltzea	Oinarrizko trebetasunak
18	Erantzun itxia	1	% 48,88	FK: KE 1	Proba zientifikoak erabiltzea	Oinarrizko trebetasunak / Energia
19	Erantzun itxia	1	% 75,22	BG: KE 2	Gai zientifikoak identifikatzea	Proiektu zientifikoa
20	Erantzun itxia	1	% 26,94	BG: KE 2	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Proiektu zientifikoa / Geologia
21	Erantzun itxia	1	% 37,88	BG: KE 2	Proba zientifikoak erabiltzea	Proiektu zientifikoa / Geologia
22	Erantzun itxia	1	% 67,98	BG: KE 1 // KE 6	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Proiektu zientifikoa
23	Erantzun itxia	1	% 52,44	BG: KE 1	Proba zientifikoak erabiltzea	Geologia
24	Erantzun itxia	1	% 66,63	BG: KE 4	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Zelula// Izaki bizidunak
25	Erantzun itxia	1	% 61,88	BG: KE 1 // KE 4	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Izaki bizidunak / Ekologia eta jasangarritasuna
26	Erantzun itxia	1	% 41,32	BG: KE 2 // KE 4	Gai zientifikoak identifikatzea	Zelula
27	Erantzun itxia	1	% 68,86	BG: KE 2 // KE 4 // KE 5	Fenomenoak modu zientifikoan azaltzea	Proiektu zientifikoa / Zelula / Ekologia eta jasangarritasuna
28	Erantzun itxia	1	% 61,81	BG: KE 1 // KE 2	Proba zientifikoak erabiltzea	Zelula

5.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna erreferentziazko edukiaren arabera da, zer testu mota den, esparru bat baino gehiago nahasten ote dituen, zer prozesu mota ebaluatzen den, informazioa nola aurkezten den (zenbakietan, benetako egoeretan, modu esplizituan gutxiago edo gehiago, grafikoetan, plano batean...), zein galdera mota den (itxia edo irekia, galdera batekoa edo gehiagokoa den, urrats bakarra edo gehiago egin behar diren...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haitan sartzen ditugu ikasleak). Zientziarako konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena 5.3. atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren analisi xehatua dute zuzenketa-koadernoetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta aukera ematen du ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak bideratzeko.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,322	15	0,365
2	0,480	16	0,330
3	0,222	17	0,286
4	0,233	18	0,288
5	0,167	19	0,272
6	0,333	20	0,114
7	0,255	21	0,164
8	0,394	22	0,366
9	0,348	23	0,248
10	0,312	24	0,349
11	0,237	25	0,363
12	0,315	26	0,197
13	0,355	27	0,364
14	0,137	28	0,134

5.3 Emaitzak

5.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 7123 ikaslek egin dute **zientziarako kompetentziako** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	7123
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	2
Lortutako gehieneko puntuazioa:	30,5
Batez besteko puntuazioa:	17,85
Desbideratze tipikoa:	4,83


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena 30,5 puntu.
- Desbideratze tipikoa 4,83 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 27,06), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

5.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Zientziarako konpetentziaren** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3484	17,78	4,62
Mutilak	3639	17,92	5,02
Nafarroa	7123	17,85	4,83



Mutilek lortutako emaitzak, batez beste, neskek lortutakoak baino pixka bat handiagoak dira, eta, aldi berean, mutilen emaitzetan dispersio handiagoa ikusten da neskek lortutakoetan baino. Ikus daitekeenez, mutilek lortutako batez besteko puntuazioa neskek lortutakoa baino 0,14 puntu handiagoa da: alde hori arintzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herena baino txikiagoa baita (4,83).

5.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, 1. eta 2. mailako ikasleek ez dute lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dute.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila honetako ikasleek erakusten dute espero baino zientziarako konpetentzia askoz txikiagoa dutela; izan ere, lehenik eta behin, oso galdera gutxiri erantzuten diote zuzen.	Maila honetako ikasleek espero zen mailatik beherako ezagutza dute. Gai dira galdera errazei erantzuteko, konpetentziaren garapenaren oinarritzko mailakoak direnean.	Ikasle hauek erakusten dute konpetentzia menderatzen dutela. Zuzen erantzuten diete galdera askori, testuinguru errealei buruzkoak barne.	Ikasle hauek erakusten dute ongi menderatzen dutela konpetentzia. Zuzen erantzuten diete galdera gehienei.
Ikasleak gai dira testu batetik informazio zientifikoa ateratzeko, agerikoa bada, baina zaila gertatzen zaie informazioa interpretatzea testuak taulak edo grafikoak dituenean.	Ikasleak gai dira testu batetik informazio zientifikoa ateratzeko, egoera sinplea bada; oro har, gai dira grafikoki irudikatutako informazioa ulertzeko.	Gai dira testuetatik informazio zientifikoa ateratzeko, tauletakoa eta grafikoetakoa barne, eta ondorio orokorrak ateratzeko.	Ikasle hauek gai dira testuetatik informazio zientifikoa ateratzeko, tauletakoa edo grafikoetakoa barne, eta ondorio orokorrak ateratzeko herriarren intereseko hainbat gaitan.
Ikasle hauek zailtasunak dituzte esperimendu zientifiko baten helburua identifikatzeko eta bertan	Ikasle hauek gai dira ondorio errazak ateratzeko egoerak esperimendu bat erreproduzitzen duenean, abiapuntuko egoera ulertzen	Maila honetako ikasleek abiapuntuko egoera ulertzen dute, eta erakusten dute metodo zientifikoa ulertzen dutela orokorki, esperimendu	Ikasle hauek ongi ezagutzen dituzte metodo zientifikoa eta faseen sekuentziazio zehatza, eta gai dira testu deskribatzaile batean azaldutako emaitza

lortutako emaitzetatik ondorioak ateratzeko. Ez dute planteamendu eraginkorrik egiten emaitza kuantitatibo zuzenak lortu ahal izateko.	dutelako, baina zailtasunak dituzte esperimentu osoa ulertzeko. Planteamendua abiarazten dute, baina ez dute emaitza kuantitatibo egokirik lortzen.	zientifikoetatik ateratako ondorioak ulertzeko neurrian. Era berean, beregainak dira emaitza kuantitatiboak ebatzi eta lortzeko planteamenduak egiteko.	esperimentaletatik ondorioak ateratzeko. Ikasle hauek emaitza kuantitatiboak lor ditzakete egoera konplexuetan.
---	--	--	--

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik ia zazpik (% 68,06) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesu zientifikoak gauzatzeko. % 11,44k bikaitasun maila erdietsi dute.
- Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (%11,12) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 20,82) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

5.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **zientziarako konpetentziaren** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzeko ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	ZK
Egindako probak	7123
Batez besteko puntuazioa	17,85
Desbideratze tipikoa	4,83
Asimetria	-0,254
Kurtosia	-0,306



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, eta zerbait kamutsagoa.
- Fisherren asimetria koefizientea -0,254 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa dela (% 47,5 vs % 52,5), eta aldakortasun handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,306 da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

6. INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA (IHK)

6.1 Probaren deskribapena

Proba hiru trebetasun neurtzen dituzten itemek osatu dute: ahokoaren ulermena (*Listening*), 9 galderarekin, idatziaren ulermena (*Reading*), 19 galderarekin, eta idatzizko adierazpena (*Writing*), galdera batekin. Irakurriaren ulermenak, aldi berean, hiru zati ditu: lehenean ikasleek zenbait iragarki edo kartel lotu behar dituzte haien esanahia azaltzen duen baieztapenarekin (*Reading 1*); bigarrean testu jarraitu eta azalpenezko bati buruzko hainbat galdera erantzun behar dira (*Reading 2*); eta hirugarrenean testu bateko hutsuneak zuzen bete behar dira aldez aurretik emandako hitzekin, horietako asko izenordainak, determinatzaileak, aditz osagarriak edo adberbioak (*Reading 3*). Idatzizko adierazpenean eskola-bidaia bati buruz hitz egin behar da aurten, kontsigna labur batzuen arabera.

Hizkuntza trebetasun horiek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barnean; hona puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazioa	Zenbat balio duen, puntuazio osoarekin alderaturik
Listening	9	% 19,6
Reading	23	% 50
Writing	14	% 30,4
GUZTIRA	46	% 100,0

Hogeita bederatzi galderekin landu ziren atazek prozesu kognitiboak neurtzeko balio dute, eta erantzun mota desberdinak eskatzen dituzte. Ondoko taulan, ezaugarri horiek erakusten dira galdera bakoitzerako, eta lortutako asmatze-ehunekoa eta bakoitzari dagokion gehieneko puntuazioa gehitzen dira. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zatia	Zk .	Item-mota	Gehiene ko puntuazioa	asmatuta koen %	Konp. espezifiko a	Ebaluatutako prozesua	Oinarrizko jakintzak
<i>Listening</i>	1	Erantzun itxia	1	% 55,03	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	2	Erantzun erdieraikia	1	% 70,26	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	3	Itxia	1	% 47,18	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	4	Erdieraikia	1	% 66,19	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	5	Itxia	1	% 75,79	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	6	Erdieraikia	1	% 52,59	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	7	Itxia	1	% 36,42	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	8	Itxia	1	% 63,41	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	9	Itxia	1	% 64,68	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, A8
<i>Reading 1</i>	10	Itxia	1	% 67,71	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
<i>Reading 1</i>	11	Itxia	1	% 58,33	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3

Reading 1	12	Itxia	1	% 65,49	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	13	Itxia	1	% 55,97	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	14	Itxia	1	% 53,37	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	15	Itxia	1	% 75,04	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	16	Itxia	1	% 51,32	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	17	Itxia	1	% 65,48	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	18	Itxia	1	% 78,67	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	19	Itxia	1	% 74,12	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 2	20	Itxia	1	% 70,97	KE 1	Ulermen orokorra /	A2, A5, A6
Reading 2	21	Itxia	2	% 73,85	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6
Reading 2	22	Itxia	1	% 51,01	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6
Reading 2	23	Itxia	1	% 63,48	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6
Reading 2	24	Itxia	2	% 48,44	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6
Reading 2	25	Itxia	1	% 81,54	KE 1	Ulermen globala	A2, A5, A6
Reading 2	26	Erdieraikia	1	% 52,80	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6
Reading 2	27	Itxia	1	% 69,92	KE 1	Ulermen globala	A2, A5, A6
Reading 3	28	Erdieraikia	3	% 53,76	KE 1/ KE 2	Hausnartzea	A2, A6, A9
Writing	29	Erantzun irekia	14	% 53,69	KE 2	Idatzizko adierazpena	A4, A5, A6, A9, B1, B3

6.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondokoen arabera da: neurtzen den trebetasuna, erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo itemak eskatzen duen galdera mota (itxia, erdieraikia edo irekia, eskatzen duena gauzak identifikatzea, lotzea, ordenatzea, hautatzea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Ingeleseko hizkuntza konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena 6.3. atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute Hezkuntza Departamentuaren webgunean eta Hezkuntza Departamentuaren barne-plataformako hainbat ataletan eskuragarri dauden zuzenketa-koadernoetan. Informazio horrek emaitzak testuinguruan kokatzen ditu, eta aukera ematen du bideratzeko Ebaluazio Diagnostikoak eragin behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak ondoko gaien gainekoak.

Ikusten dugunez, proba hau berezia da. Hiru trebetasun neurtzen dira: ahozkoaren ulermena, idatziaren ulermena eta idatzizko adierazpena. Aurten, 9 item lehen trebetasunekoak dira, eta asmatutakoen ehunekoak % 36,42 eta % 75.79 artekoak dira.

Idatzizko ulermenaren barruan, *Reading 1* eta *Reading 2*ren emaitzak aztertzean, ondoriozta dezakegu ikasleek zailtasun berberak izan dituztela testu laburrei aurre egiteko garaian eta testu luzeei aurre egiteko garaian. *Reading 3n*, ikasleek hainbat hutsune bete behar zituzten hitz jakin batzuekin, eta, beraz, irakurtzeko konpetentzia ona eta hizkuntzaren nolabaiteko ezagutza erakutsi behar zuten: asmatutakoen ehunekoa % 53,76 izan da batez beste.

Proba osotik zazpi item ez dira erantzun zuzenen % 55era iristen, ebaluatutako irakurketa-prozesuei eta erantzun motari dagokionez. Azterketak adierazten digu lau itemek informazioa interpretatzeko gaitasuna neurtzen dutela, eta bik informazioa aurkitzeko gaitasuna. Era berean, bi horietako batek erdi-eraikitako erantzuna eskatzen zuen, hau da, ikasleek landu behar zuten. Oro har, badakigu lokalizazio lanak ez direla hain zailak gertatzen (halaxe frogatzen dute urtero gaztelaniazko eta euskarazko irakurmeneko emaitzek). Baina, aurten ere frogatzen den bezala, atzerriko hizkuntzaren kasuan ezinbestekoa da dagokion trebetasunarekin eta, beti bezala, galdera motarekin erlazionatzea; izan ere, galdera irekiek konplexutasun handiagoa eskatzen dute eta ikasleen jarrera minimo bat eskatzen dute.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,492	16	0,595
2	0,591	17	0,530
3	0,418	18	0,570
4	0,502	19	0,566
5	0,431	20	0,261
6	0,634	21	0,585
7	0,194	22	0,307
8	0,399	23	0,448
9	0,360	24	0,447
10	0,412	25	0,453
11	0,529	26	0,560
12	0,478	27	0,372
13	0,281	28	0,797
14	0,272	29	0,749
15	0,598		

6.3 Emaitzak

6.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 7123 ikaslek egin dute **ingelesezko hizkuntza konpetentziako** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:


Egindako probak, guztira:	7120
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	1
Lortutako gehieneko puntuazioa:	46
Batez besteko puntuazioa:	27,24
Desbideratze tipikoa:	11,51

Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 46 puntu.
- Desbideratze tipikoa 11,51 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 42,25), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun handia dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

6.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **ingelesezko hizkuntza konpetentziaren** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.



Neskek lortutako emaitzak, batez beste, mutilek lortutakoak baino handiagoak dira, eta, aldi berean, ez hain barreiatuak. Ikus daitekeenez, neskek lortutako puntuazioa mutilek lortutakoa baino 2,97 puntu handiagoa da: alde hori moderatutzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herena baino txikiagoa baita (11,51).

6.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dute lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dute.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila honetako ikasleek erakusten dute espero baino ingelesezko hizkuntza konpetentzia askoz txikiagoa dutela. Testu idatziei dagokienez, gai dira informazio literala ulertzeko, baina zailtasunak dituzte informazioa aurkitzeko testua etena denean. Zailtasunak dituzte interpretatzea, globalki ulertzea, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderei erantzuteko. Erakusten dute gabezia handiak dituztela hizkuntzaren ezagutzan. Zailtasun handiak dituzte ahozko ulermenean. Planteatutako gaiari buruzko esaldi osatugaberen bat idazteko gai dira soilik.	Maila honetako ikasleek erakusten dute espero baino ingelesezko hizkuntza konpetentzia txikiagoa dutela. Irakurmenari dagokionez, gai dira informazio literala ulertzea eskatzen duten galderei erantzuteko, testu jarraituetan nahiz testu erraz etenetan. Hori hala izanik ere, zailtasunak dituzte testuak globalki ulertzeko, interpretatzeko eta baloratzeke. Ez dira gai inferentzia konplexuak egiteko, ezta ondoz ondoko bi lerrokadatan dauden ekintza batzuk konektatzeko ere. Zaila egiten zaie pertsonaien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak interpretatzea. Ez dituzte menperatzen izan beharko lituzketen hizkuntza-egiturak, eta, beraz, ez dira gai testu baten formari buruz hausnartzeko. Gai dira audio sinpleetako mezuak ulertzeko. Planteatutako gaiari buruzko esaldiren bat idazteko gai dira soilik.	Maila honetako ikasleek espero zen konpetentzia lortu dute. Zuzen ebatzen dituzte informazioa bilatzearekin lotutako galderak, informazio hori literala izan zein ez. Zuzen ulertzen dituzte informazioa eta haren banaketa testu eten batean. Testua globalki ulertzen dute, eta gai dira istorio baten sekuentzia ematen zaizkien esaldiekin berregiteko. Gai dira testu baten edukiari eta formari buruz hausnartzeko, hizkuntza behar bezala menperatzeari esker. Gai dira testuko datuak aprobetxatzeko, haren edukia beste testuinguru batean aplikatu ahal izateko beharrezkoa den informazio garrantzitsua atera behar dutenean. Gai dira audioetako mezuak ulertzeko. Gai dira testu errazak ingelesez idazteko, planteatutako gaiari buruz.	Ikasle hauek erakusten dute ongi menderatzen dutela konpetentzia. Zuzen ebatzen dituzte informazioa bilatzearekin lotutako galderak, informazio hori literala izan zein ez, testu mota edozein delarik ere. Testua globalki ulertzen dute, eta gai dira istorio baten sekuentzia laguntzarik gabe berregiteko. Oso ongi egiten dituzte testu baten edukiari eta formari buruz hausnartzea eskatzen duten zereginak, beren ezagutza propioak erabiliz. Audioko mezuak zehatz-mehatz ulertzen dituzte. Gai dira ongi egituratutako eta kohesionatutako testuak idazteko, etapari dagozkion baliabideak erabiliz.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio- tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 10)	% 9,92
2. maila	[10,21]	% 20,14
3. maila	[21,42]	% 60,15
+3. maila	[42,46]	% 9,79



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik zazpik (% 69,94) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira ebaluatu diren hiru trebetasunetan planteatu diren prozesuak gauzatzeko. Prozesu horiek beren eskolatze mailari dagozkio. Hamar ikasletik ia batek (% 9,79) erdietsi du bikaintasun maila.
- Hamar ikasletik batek (% 9,92) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 20,14) tarteko egoeran dago, ikasmilari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

6.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **ingelesezko hizkuntza konpetentziaren** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak erreplikatzan ditugu, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	IHK
Egindako probak	7120
Batez besteko puntuazioa	27,24
Desbideratze tipikoa	11,51
Asimetria	-0,351
Kurtosia	-0,976



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta ez hain zorrotza.
- Fisherren asimetria koefizientea -0,351 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoiak. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa dela (% 46 vs % 54), eta aldakortasun handiagoa.

- Fisherren kurtosi koefizientea $-0,976$ da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

7. ALDAGAI SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALA

Edizio honetan, DBHko 2. mailako ikasleek aldagai soziokulturalari eta ekonomikoei buruzko testuingurugaldetegi bat bete dute, eta dagokion Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK) kalkulatzeko informazioa atera da.

7.1 ISEK lortzea eta erabiltzea

Galdetegiaren helburu nagusia da informazioa biltzea Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK) egiteko. Indize hori, lehenik, ikasleari dagokio, eta, bigarrenik, ikastetxeari. Indize honek kontuan hartzen dituen aldagaiak dira PISA proiektuan eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako ebaluazio diagnostiko orokorretan erabilitako antzekoak. Indizea prestatzeko aldagaiak lau hauek dira:

- Gurasoen edo legezko tutoreen ikasketa-maila (bietako edozeinek duen handiena hartzen da kontuan), behetik gorako 5 kategoriaren sailkaturik dagoena.
- Gurasoek edo legezko tutoreek egiten duten lana (bietako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan, betiere horietariko batek lan egin eta soldata bat irabazten badu). Behetik gorako 5 kategoriatan dago sailkatuta (0 balioa ematen da bietako batek ere ez badu lan egiten eta soldata bat irabazten).
- Etxean dituzten irakurtzeko liburuen kopurua, behetik gorako 5 kategoriatan sailkaturik.
- Zenbait kontsumo ondasun etxean ba ote dituzten. Bost hauek hartu dira: mahai gaineko ordenagailua edo ordenagailu eramangarria (ikastetxean eman dizutenaz bestelakoa), ikasten laguntzen dizuten entziklopediak edo kontsulta-liburuak (paperezkoa edo digitala), aldizkari espezializatuak (informatika, natura, literatura, etab.), tableta eta norberaren gela izatea. Otik 5era bitarteko balioak eman daitezke, etxean dauden kontsumoko ondasunen arabera.

Pisu bera eman zaie aurreko lau aldagaiei, halako moldez non haien balioak zenbatuta lortzen baita ikasle bakoitzari dagokion ISEKaren banakako balioa (banakako ISEKaren zuzeneko puntuazioak). Ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa normalaren arabera, hartara, 0 izanen delarik Nafarroaren batez bestekoa (banakako ISEKaren puntuazio estandarizatuak). Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen indizeen batez bestekoa (ikastetxeko ISEKa).

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren artean korrelazio moderatua dagoela. Txosten honen 7.3 atalean daude ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, konpetentzia bakoitzaren arabera banatuta, eta ikastetxeko Errendimendua-ISEKa erregresio-zuzenen grafikoak.

- Errendimenduaren eta ikastetxeko ISEKaren arteko korrelazio-koefizienteek adierazten dute ikastetxeko ISEKak eta proba bakoitzean lortutako errendimenduak nolabaiteko korrelazio positiboa dutela. Hori handiagoa da koefizientearen balioa 1etik zenbat eta hurbilago egon.
- Ikastetxeko ISEKak ikastetxeen batezbesteko puntuazioen arteko bariantzaren edo aldean parte bat azaltzen du. Bariantza azaldua biderkadura honek ematen du: $100 \cdot R^2$, non R^2 erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den. Biderkadura hori konpetentziaren arabera aldatzen da.

- *Errendimendua-Ikastetxeko ISEKa* izeneko erregresio-zuzenak malda positiboa dute; horrek esan nahi du ikastetxeko ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea konpetentzia batetik bestera aldatzen da: ikastetxeko ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitza loturik dago, ikastetxearen batez besteko puntuazioaren igoerarekin. Hurrengo tauletan datu hori gradiente modura ageri da.

Taula honetan, proba bakoitzean lortutako **korrelazio-koefizienteen** eta **100* R2** koefizienteen balioak aurkezten dira:

	Korrelazio koefizientea	Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	Erregresioko malda zuzena (gradientea)
Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia	0,635	40,31	53,258
Euskarazko hizkuntza konpetentzia	0,094	0,88	8,519
Matematikarako konpetentzia	0,571	32,60	54,828
Zientziarako konpetentzia	0,488	23,81	43,605
Ingeleseko hizkuntza konpetentzia	0,615	37,88	54,387

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen da, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera eta gero ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa irudikatu da "ISEK-Errendimendua" motako erregresio-grafikoan; horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragartzen ahal den puntuazioarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEKa) arabera iragarritakoa baino batezbesteko handiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batezbesteko txikiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.


Erregresioko grafikoetako informazioak testuinguruan kokatzen ditu ikastetxeen emaitza orokorrak, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak aukera ematen du Nafarroako batezbestekoarekin modu justuagoan konparatzeko. ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino txikiagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, beren irakasleen itxaropenak, etab.

Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara iritsi gaitzke, erregresio-

grafikoetan ikusten baitugu ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela, erran nahi baita, ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasun desberdina. Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak hartzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.


Jarraian, proba bakoitzerako, **ikastetxeko ISEK – Puntuazio eraldatua** puntu-hodeia aurkezten da, dagokion **erregresio-zuzenarekin**. Ardatz horizontalean irudikatu dira ikastetxeetako ISEK balioak eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua konpetentzia bakoitzean. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio. Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez (3tik 223 ikaslera bitarte), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasleen kopuruaren arabera. Haztapen horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriagoak ateratzen laguntzen du.

7.1.1 Erregresio-zuzena: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 178,45 puntukoa da.

7.1.2 Erregresio-zuzena: EUSKARAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 134,53 puntukoa da.

7.1.3 Erregresio-zuzena: MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 231,10 puntukoa da.

7.1.4 Erregresio-zuzena: ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA



Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 213,22 puntukoa da.

7.1.5 Erregresio-zuzena: INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 201,46 puntukoa da.

7.2 ISEKaren banaketa

7.2.1 BANAKAKO PUNTUAZIOAK


Ondoko grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena 20 puntu.
- Desbideratze tipikoa 3,71 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren -12,80- % 28,98), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.
- Banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa, banaketa normalarekin alderatuta, asimetrikoa gertatu da ezker aldetik, eta ez hain zorrotza.
 - Fisherren asimetria koefizientea -0,294 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioen guztizko maiztasuna (12,80) batez bestekotik gorako puntuazioen guztizko maiztasuna baino txikiagoa da (% 44,90 vs % 55,10).
 - Fisherren kurtosi koefizientea -0,585 da.


Eskuineko grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio normalizatuen banaketa. Kontuan hartu horren forma aurrekoarena bera dela, aipatu behar bada ere balioak -2,91 eta 1,94 artekoak dituela, batez bestekoa 0 duela eta desbideratze tipikoa, berriz, 1.



7.2.2 IKASTETXEKO PUNTUAZIOAK

Ebaluazioan sartuta dauden 96 ikastetxeetako bakoitzari "ikastetxeko ISEKa" eman zaio; ISEK horren balioa lortzeko, ebaluatutako ikasleen banakako ISEK estandarizatuen batezbestekoa egin da. Ikastetxeek -0,9388 eta +1,0287 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Grafikoan irudikatzen dira ikastetxeko ISEK balioak. Ikastetxeak 4 taldetan sailkatu dira, ikastetxeen ISEKaren maiztasun banaketaren kuartilak bereizten dituzten 3 atalaseen arabera.



4 taldeak zehazten dituzten 3 atalaseak -0'3035, +0'0185 eta +0'3832 dira.

Sailkapen horretan 24 ikastetxek dituzte ISEK balioak lehen kuartilaren barruan (maila baxua, ISEKa -0.3035 baino txikiagoa), 24 ikastetxek bigarren kuartilaren barruan dituzte ISEK balioak (maila baxua-ertaina, ISEKa -0.3035 eta +0.0185 artean), 24 ikastetxek hirugarren kuartilean (maila ertain-altua, ISEKa +0.0185 eta 0.3832 artean) eta 24 ikastetxek goiko kuartilean (maila altua, ISEKa 0.3832 baino handiagoa).

Nafarroako Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Ebaluazio Atala

Iruñean, 2024ko ekainaren 30ean